

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

84/2020 Foru Agindua, ekainaren 17koa, zeinaren bidez Jesús María Guinea Díaz de Otalora Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren titularrari eskumena eman baitzaio informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 35. artikuluko 1. apartatuan ezartzen duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko dituzten sailaren titularrak, 32. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 91. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, administrazio ahalmen edo eskudantziak aldundiaren beste organo batzuei eskuordetu ahalko zaizkie. Ildo beretik, arau horren 94. artikulua xedatzen du aukera dagoela diputatu nagusiaren eta foru diputatuen eskudantziak zuzendariari eskuordetzeko, salbu eta artikulua horretan bertan aipatzen diren salbuespenak badaude; haietatik batek ere ez dio eragiten hemen hizpide dugun gaiari.

Administrazio arloko izapidetze eta kudeaketan, efikazia, arrazionalizazio eta efizientzia irizpideak kontuan hartu behar izateak gomendatzen du Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzea informazio publikoa eskuratzeko arloko eskaerak ebazteko eskumena.

Horregatik, administrazio efikazia eta azkartasunaren mesedetan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, ezarritako eskuordetze aukerak kontuan izanda, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jesús María Guinea Díaz de Otalora Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzea zuzendaritza horretan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzeko arloko eskaerak ebazteko eskumena, zeinak araututa baitaude otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenean.

Eskuordetze hori mugagabea izango da, lehenago ez bada ezeztatzen edo goragokoak ez badu bereganatzen esanbidezko ebazpen bidez.

Bigarrena. Eskuordetzea tarteko ematen diren informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ebazpenetan esanbidez azalduko da eskuordetzea tarteko eman direla, eta organo eskuordetze emaileak eman izan balitu bezala joko da.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 17a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA